

## Abenduaren 6aren etorrerarekin, Espainiatik alde egin nahi dugunok ez dugu ezer ospatzeko

Abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren urteurrenaren etorrerarekin, egoitzak zabalduko ditu LABek. Hala, urtero legez, lan egutegi propio bat aldarrikatzen dugun neurrian, planto egingo diegu inposatutako jai egunei. Ez dugulako ezer ospatzeko.



Hain zuzen ere, Frankismoan ezarritako zutabeen gainean eraiki da Konstituzioa eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren garapenerako bermerik onena izan da. Euskal Herrian zein estaturik gabeko beste nazioentzat eskubide nazional, politiko eta sozialen ukazioa ekarri du, hamarkadetan. Kapitalaren nagusitasuna bermatu du Espainiako Konstituzioak. Langile klasearen zapalketa, herri sektore anitzen bazterketa eta miseria bideratu du; migranteen aurkako sorgin-ehiza eta pobrezia eta bazterketa soziala, tartean. Euskal langileon eskubide laboral eta sozialak etengabe kolpatzea ahalbidetu du, krisi eta erasoaldi ezberdinak tarteko, eta bizitzaren prekarizazio aroari ateak ireki dizkio.

Eta zer esan, emakumeon\* egoera espezifikoari dagokionez, Konstituzioaren aterkipean garatu den sistema kapitalista eta heteropatriarkalaren ondorio dira egun bizi-bizirik dauden diskriminazio ezberdinak, soldata arrakala eta indarkeria matxista.

Emakumeon\* zampaketarako tresna izan da Konstituzioa. Zampaketa politiko eta sozialerako tresna ere bai, ez ditu herrirentzako, ez herritarrentzako oinarritzko eskubideak bermatzen, dela etxebizitza, direla lan eskubideak. Ez zen eskubideak bermatzeko sortu, Espainiako "batasuna" defendatu eta asimilazioaren bidea

bermatzeko baizik. Eta kezka bizi dugu, gainera, lurralde krisi betean, ematen ari den inboluzio autoritarioa eta faxismoaren gorpuztea.

Espainiatik alde egin nahi dugunok ez dugu ezer ospatzeko. 78az geroztik geure borondatearen kontra lotzen gaituen katea, Espainiako Konstituzioa, lan duina eta bizi duinaren aurkako eraso zuzena da. Langileon eskubideak txikitzeko aukerak ziurtatzen dizkio botere ekonomikoari. Horrenbestez, eredu sozial eta ekonomiko berri bat eraiki nahi badugu, aldaketa soziala hauspotu behar dugu, eremu guztietan erabakitzeke eskubidea defendatu eta eraldaketa soziala burujabetza prozesu batekin uztartu.

78ko erregimenarekiko kateak apurtzeko unea da. Ez dugu zer ospatu, baina bai zer borrokatu: independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Demokrazia, justizia eta bakea. Burujabetza. Konstituzio propio bat, Estatu egitura propio bat, Euskal Errepublika aldarrikatzen dugu.

Estatu propio bat behar du Euskal Herriak, erabakitzeke eskubidea oinarri. Herri aktibazioa eta borondatea dira aldaketa sozial eta politikoaren giltza.